

EUSKALTZAINĒN IKER- AZTERPENAK

GURE "ACADEMIA" ONI DAGOKION EUSKAL-IZENA

(AZKUE, EUSKALTZAINDIA' REN BURU YAUNAK, 1920^o URTARILAREN
7 GAREN EGUNEKO BATZAREAN EGINDAKO IKERPENA)

Orain urte ta erdi argitaratu nuen Sakeliztegian, azken-
oñi aldean itz auker irakur dezazke : *Academia* (de la
lengua), izkélzaingo ; *Académico* (de la lengua), izkélzain.
Guri bizkaferatu diguten arazo au, *Académico de la lengua
vasca* izate au, adiarazteko itz bat orok, geyenok beintzat,
lengo esertaldietan egokitizat artu degu : Euskalzain. Itz
au batzuk aldatzaka (aldatu gabe) nai lukete, beste
batzuk nolabait besteratzuz. Zuberotañari etxeoago, ma-
minago ta gozoago zayo *uskalzain* esatea ; Añatiañari, *eus-
kelzain* ; Lekeitiañ oni, *eskualzain* ; Aspandarari, *eskualzain* ;
Giputzari, *euskalzain* ; napañen batzuri, *auskelzain*. Norbaitek
bear bada, ta eñia alde bat utzita, nayago luke *euskalzain*
entzun, beintzat idatzi. Gizonak : baltzu onetan batu-
orduko « buru bezanbat aburu » gure artean izan badira,
ate ori, irtetzeko, zabal dezagunean, aburu bakar bat

1. Ikus batzañ oñen agiria, EUSKERA onen I^o Atalan, 62 garen
oñian.

izan bite ororena, Baltzuaren aburua. Onetarako iker ditzagun ele óren izkinak (silabas).

I. *Eus.* Napañoako Sakandafak (los barranqueses), asi Altsasutik Irurtzuna bideko euskaldunak, eta Bilbo-aldeko batzuk (Zolo, Ubao ta Elejabeitiakoak) *eu* ori ta beste beredin *eu* maiz *au* ezpainetan itzultzen dakite. *Nauk, gaurea, aurie*, entzuten da Bizkaiko basauri orietan, *neuk, geurea* ta *euria*-ren orde; *Lauri* entzun nuen Lakuntzan. (Izlegia eginez gerokoak ditut batzai auek) *Lauri, neurí*-ren orde; *auntzale* Lakuntzan ta Uarte-Arakilen *eule* (tejedor, *tisserand*) adierazteko; ta bai Sakandafok eta bai Paga-sarípeko Bizkaitar aye *auskeraz* ari izaten dira. Ostagi (fenómeno fonético) au bestera entzuten da Gernikako ibar edef aretan : *au*-ren orde *eu* : *geur, eufera, euntze; gaur, aufera, auntza* ebaki-beafean. Orok dakizute Fonétican ezin ar ditezkela legetzat onelako ostagi nunbait-ekoak (fenómenos particulares).

Zuberon ta Bizkaiko Orozkon ta Napañoako Aezkoan, Saraitzun eta Eronkarin *eus* ori *us* ebakitzen dute : Zuberon *üs.* *Uskaldunak* dira aye; Zuberotafak, *iiskaldun plaiñak*; Orozkoafak, *uskeldunek*.

Ondarabian *eskara* entzun izan det *euskera*-ren orde. Hiribarnek *eskaldun* ta *eskalheñi* dakazki. Lekeition *eskue-raz* ta *eskualduna* ta *eskualheñi* esan oi dute askok. Bilboko paper *Euzkadi*, « *Eskuadi* » iragartzen dute Lekeitioko kalétan. Lapurdin ta Benapañoan *eskualdun, eskualheñi, eskuara* entzun oi da askoren ezpainetan. « *Metátesis* » aipatzen dute erdaldunak onelako ostagia (fenomenoa). *Arkal* ta *arpel* ta *elderdun* esaten dute Bizkaitar askok *alkar* ta *alper* ta *erdeldun*-en orde. Aldatuak baino aldatzakak aintzat artzekoago dira ta guk ere *eskualdun* baino *euskaldun*, zařago ta aldatu gabea dalako, aintzat artu bear degu.

Gure egunetan norbaiti itz eder guren onetan z sartzea otu zitzayon : *euzkera*. Eñiak gure egunetararte eztu, guk dakigula, z au inoiz ez inon erabili ta egun ere eñiak berak ez. Etimologia deritzayon yakintze ori etorkoña (condescendiente) da, biguña da ta esku-zabala, ugaria. Agortzaka zein-nai lanetan, gogoz ta beti geron erara laguntzen digu.

Etimologiak agintzen dielako, *asko*-ren ordez *azko* erabiltzea otu lekiok norbaiti. *Asko* oñek erderazko crecimiento (*accroissement*) iragartzen duela ¿nork eztaki? Crecer (*croître*) ezta esaten euskeraz *asi*, *azi* baizik. Oñegatik erderazko « mucho » (*beaucoup*) adiarazteko, *askok* baino egokiagoa dirudi *azkok*. Baita eraman genezazke Etimologia oñek *astoa aztoa* idaztera ere. Oihenartek bere *Atsolitz* txanbelin batean dio : *Nahi duenean doake bakhura, arstoa ta arbalda dituena eskura*. Yakina da Oihenartek *zeda*, frantziaræk bezela, *s* idatzi zuela ¿Zer da *arstoa* edo *arztoa*?

Zer da yatofiz, Etimologiaren argitan ¿eletxo zañ-zañ polit ori? *Orstoa* oñi txikia danez, *arztoa* artz txikia da. Euskaleñian antzina, anbiolan, dena basoa baitzen, etzen astorik, astoak toki zelaya nai du-ta. Artzak bai ugari ziran. Baso ta oyan ta isasi ta txaraka ayetako uñ ta ezkuñak gizen-gizen azi ere egiten zituzten. Gizonak, sañiak (las espesuras) egazti ta aberentzat ulzita, uriak sortu zituztenean, zama ta sendoñak yasotzeko lagunak nairik, nunbaitik zamari otzan ixil apal bat ekafi zuten. Zamari ark, bere ile beltz ta buru andiz artza zirudielarik, izen bat bear-ta, *arztoa* ezafi zioten deituratzat, oñi txikiari *orstoa* bezela. Orstotik *osto* atera zutenak *arztotik azto* azaldu ziguten. Oña oñ zamari ile-beltz, buru-andi, otzan, apal onen izenaren yatofia. Beraz z erabili bear degu aipaldi bakoitzean, yatofizko z , artzarena, Etimologiazkoa.

Etimologia ori, odehyak bezelako aldakoña da ta gerekatxoa, geldirik egon ezin dana : batean *s z* itzuliz geroz, bestean *z s* bigurtuko digu. Onelaxe eman dizkigu *zazpi*-ren ordez *saspi*, *gazte*-ren ordez *gaste*, *guzli*-ren ordez *gusti*, ta, beriz, *adiskide*-ren ordez *aizkide* ta *euskera*-ren tokian *euzkera*. Oriek atzo. Egun *azko* ta *aztoa* eman dizkigu. Biar nai degun bezenbat altzoratuko digu; opaka ari da beti. Lenago aspertuko gera gu berari eskatzen, bera guri eskaintzen baino. Gizonak : *Etimologia* aizetsu ori ibilgailutzat degula, izkeraren bideak ikertu nai badiugu, egun alayak zoragafiak igaro genezazke, enura gabe; baina izkera bera pofokatua yañiko zaigu. Zerbait gizaldi osoetan ta Euskaleñi guzian *ese-z* ebakia izan bada, bijoa *Etimologia* ori bere bidean, bere *z* guziak soingainean dituela, txoratu gaikazan baino lenago. Bego, beraz, oso-osorik *euskalzain*-en lenengo izkina : *eus*. Goazen orain bigafenera : *kal*.

II. Gure eritar batzuk *kel* esan oi dute, geyenak *kal* : *euskaldun*, *euskalzale*, *euskaleria*; baita *euskera*, *euskararen* ordez, diotenak ere (ta Goiko Napañoan ta Bizkai ta Gipuzkoan ala oi dute) geyenak *euskaldun*, *euskalzale* ta *euskaleria* dauzkate ezpainenan¹. Euskalki askotan *ua*-ren ordez *ue* erabiltzen da : *eskue*, *agindu deu*, *apur bet*, *luzero*, *eskua*, *agindu dau* ta *apar bat* ta *luzaro* esan-beañean. Ofelantxe *euskaldun* ta *euskaleñi*-aren ordez sortu dira nere ustez *euskeldun* ta *euskeleña*. Sinestailutzat auxe daukat : *eskua* esaten dan aldetan *euskaldun* esaten da ta *eskue* erabiltzen danetan *euskeldun*. Lenagokoa da ta aintzakoagoa dirudi *euskaldunek*, erabiliago ere badegu. Nondik otedatorkigu, ordea, Araba ta Bizkai ta Gipuzkoako gizonoi *euskera e-z*, *euskaldun a-z* esatea ? *Maite-tik mai-*

1. Ikus geigarñan irugarñen oarñ.

tagari ta *etsetik etsadi* bezela sortu otezaizkigu ? ¿Ala, beste guzien antzera, auetan ere *euskara* noizbait ebaki otezan ?

III. Urats bat auferatuz goazen orain irugañen izkinera : *zain*. Giputz geyenak eta Napañ askok *zai* esaten dute *zain*-en ordezt; *izoki* ta *sui* ta *ipui*... *izokin* ta *suin* ta *ipuin*-tzat bezela. *Zain* dunak askozaz geyago gera : Arabañ, Bizkaitañ, Lapurtañ ta Zuberotañ guziak eta Napañ geyenak. *Euskalzain*, ta ez *euskaljai*, artu beañ degula erabaki diteke beraz¹. ¿Eta *euskalzain* ala *euskaltzain* ? Auxe da nere ustez arlo onetako ezbairik zailena, erizkizunik gaitzena. ¿*Elek* eta *zedak*, alkar yotzean, ezaldute *ltz* egiten ? Noiz ta nola dan ; itz batzuetan bai, bestétan ez.

Agots-lege (leyes fonéticas) batzuk itz-bañukoak dira (vabulares), besteak bi itzen artekoak (perifrásticas), batzuk itz soilenak (temáticas), besteak itz yantzienak (morfológicas). *Il tzan*, *il tzirean* esaten degu Bizkayan. Aintzat, Aita Zabala ta Añibaño idazle andiak izan ezik, besteak eztitu aintzat artu onelako gertakariak. Oriek ofela izanañen, erderazko *plenilunio* eztegu *iltzar* esaten, *iltzar* baizik. Ekafi-beñia ta ekafi-zaña bezela il-beñia (atzo naiz erenegun ildakoa) ta il-zaña (orain iru-lau urte il zana) esaten degu.

Itz soiletan, azkitz (sufijo) gabekoetan erderazko *l* ta *z*-tik *ltz* ateratzen du gure eñiak, egun auetan beintzat. *Allza alza*-ren ordezt; *Saltzedo*, *Salcedo* esateko; *pultzera* bat, *kaltzak* eta *kaltzerdiak* erderazko (*calzas*) dituzte beren gurasoak. Gertakari auek (len aipatu deguna) *perifrásticas* dira batzuk, bi itzen artekoak ; besteak *temáticas*, itz soil batenak.

Euskalzain, *euskeltzain* esatea elitzake izango ez bate-

1. Ikus geigañian bigañen oaña.

riko, ez besteriko legea, ez (*perifrástica*) « il *tzirean* » bezela, ezta Saltzedo oñetako (*temática*) ere. (Ley morfológica), itz yantzi baten legea, izango litzake *euskaltzain*, lege balitz. Itz onen *l* yatoriz *r* zan : *euskera*, *euskara*. Gure egunetan norbaitek bere burutasun batentzako zurrkaitz ta euskailutzat *ele* « izkera, mintzaya » dala asmatu du. Ezkarotz deritzayon napañ-urixko batean nerabearterko oyukitxo (kantatxo) taxa au ikasi nuen :

Gure aur konen dotea
karakol utsen betea :
agian bai, agian ez ;
txoriak pikuan ezer ez.

Ele ta *izkera* berdintzat artzea eztef nik esango « mafaskulu utsen betea » danik ; baina zerbait baldin bada, agi utsezkoa da : « agian bai, agian ez », erderaz « en apariencia ». Izatez *ele* oñek itza adierazten du, itz bakaña ; izatez ezta « izkuntza, mintzaya, izkera. » Euskaleñiaren eskuinalde orotan ezagutzen dute *ele* : Baztanen asi-ta Efonkariragino goiko Napañoan, bekoan nonnai ta gainera Lapurdin ta Zuberon ezpainez belañi egunoro ta orduoro dabil itz edeñ ori. Inon eztu itzaren baino beste zentzunik (acepción). Bada, oñegatik, nere ustez, goi-bêtxoren bat *ele* ta *itz*-artean, frantzesen *parole* ta *motek* alkañen artean duena.

Goazen orain arira. ¿ *Euskaltzain* ala *euskaltzain*? Itz orien *l* agots aldatua da, yatoriz *r* zan : *euskera* naiz *euskara*. Gure mintzai edeñ onek onelako gertaldietarako lege bikoitz bat du : lege taxa (bello), argia ta ondoretsua.

Ona bada : edozein muñ-ulketak aldakuntzea eskatzen du, agots ulduaren uñengoa aldakizun bada. Erderaz (la supresión de un fonema orgánico¹ exige permutación,

1. Generalmente, consonante.

siempre que el siguiente al elidido sea permutable). Gure fonética-legêtan *ts*, *tz* ta *tx*-ren uréngo agotsak, *bodega*-koak badira; *petaka*-ko itzultzen dituzte, berak *t* galduz : *izkera*, *izkimizki*, *izketa*, *izmizti*... *itz*-etik datoz; *aitz*-etik, *aizkora* ta *aizto* ta *aiztu* eta *azkoili* ta *azpeili*; *auts*-etik, *auskaldar*, *auspo* ta *austegi*; *mots*-etik, *moxtote* (erderaz, *rechoncho*) ta *moxtare*; *ozpera*, *otz bera* da; ta *ozpiko*, *ortz biko*. *Basabe* ta *Mendibe*-ren *be pe* itzultzen da, *tz*-ren ondoan : *Aizpe*, *aspe*, *axpe* (*aitzbe*); *Arizpe* (*aritzbe*) : *Sagardo*, *sagardui* ta *elordi*-ren *doi*, *dui*, *di*, *toi* *tui* *tui* itzultzen ditugu : *Ufuztoi*, *ameztoi*, *aztui* (*Astuy*), *arizti*....e.a. *Dirudun*, *bizardun*, *osasundun*-en atzizki ori *lun* egiten du gure *itzek* : *iztun*. ¿*Euskalzain* naiz *euskaltzain* lege onen azpian bizi oteda? ez. Ofen legea beste au degu : « Aldakuntze batek ezta aldatzen uréngo agotsa, au aldakizun izan afen. » Erderaz : « una permutación no exige otra, aunque el fonema contiguo sea capaz de ser permutado ». *Euskaldun*, *euskaleri* : *l* ori, *len* esan degunez, *ere*-ren aldakuntzea da. Lege au ikertu-orduko, zerbait oartu beara naiz. *Linguistica* deritzayon yakintzea ezta, erderaz esango genukean, *ciencia matemática*. *Bi* ta *bi* linguistican ez tira beti lau izaten. *Len* azalduko lege ortan ere, geyen-geyentsuenetan, *bodega petaka* itzuliafen, *itz* banakaren batean *g* ezta *k* itzultzen. Bizkayan berean askok *azkurea* esanafen, nere amarengandik ikasita *azgurea* esan oi det ník. Baztanen *azkalea* entzun izan det, baina Otzandianon ta Gipuzkoa ta Napañoako uriren batzuetan *azgalea* erabiltzen dute. Legea lege izateko tokirik geyenetan erabiltzea aski da. Ona emen *l* aldatu ori *bodega*-ren izki ofezaz nola alkartzen dan, bat ere gogortu gabe. *Abelbürü* (*S*) ez *abelpürü*; *abelgori* ez *abelkóri*, *abellegi* ez *abeldegi*; *abelzai* ta *abelzain* (BN. ta S.), ez *abeltzain*. *Aalzain* ta *alzai* (AN); *altzai* ere (AN, G) batu det Napañoan berean, iztegia argitaratuta gero. Iruritan (Baztanen) gertakari edef au en-

tzun nuen : *Altzaingoa* (pastoreo público) *nere kontura artu dut. Athalzain* dio Axulafek, Haranedefek *athaltzain*; ta gero aldakuntzerik gabe entzun ditut *atalzakur, atalzai ta atalzapata. Eri-tik* (*ere ele-turik*) *elbari, elgoñi, helgaitz*; aldakuntze gabe, *elpari, elkaitz* esan gabe. *Erderatik erdal-dun, ez erdallun. Euskeratik euskaldun, euskalgaitz, euskal-zale* (erriari entzunikoa degu au ere). *Estari-tik* entzun ditut *estalgí ta estalki, estalbe ta estalpe*. (Atzizki au len be zan, aldakuntzez *pe* itzultzen zan), aspaldion ere *pe*, alda-kuntze gaberik esaten degu : *eskupe, maipe, menpe. Eus-keratiko* itz auk efiarenak dira : *euskaldun* (c...) *euskal-gaitz*, (AN, L) *euskalgaitzo* (B, G) ta *euskalzale* (B, G), *üskaldiin* (S). *Gari-tik galbae* (B); *galburu* (AN, B, G), *gal-bizar* (G), *galgarau* (B, G), *galgoñi* (AN, B), *galzoñi* (B), *galzukur* (B), *galzikin* (B, G), *galzuri* (B-a-o). Ezunerik (excepcion-ik) *galtzuztar* batu det ta *galtzu* ere baotedan aipatu zuen norbaitek emen gure azken-batzafean. Zube-rotafak *zamari-tik zamalzain* eratu dute, ez *zamtalzain*. Itz gutxitan $l + z = lz$ ala llz (*Euskalzain* ala *Euskaltzain*) dala yakineragiteko ezlet gertakari geyago bildu al izan. Aipa-turiko gertakari orietan berogei ta bat dauzkagu Euskal-zainen aldekoak, Euskaltzainenak lau baizik ez; *Altzi* « hilacha, effilure », uste izan lezakeanez *ari-zi* yatoriz bada, bost. Lege gutxi, agots-lege gutxi uste det ediren litezkeala au baino sendoagorik.

Euskera-zain euskalzain esan bear bada, *euskera-zale eus-kalzale* esan bear dala ageri da ta gainera ere erabiltzen du gure efiak. Norbaitek emen azken-batzafean aipatu zuen efiak eztuela itz ori esaten. Neronek entzun det, eta maiz ala ere, Bizkayan ta Gipuzkoan. Ori baino gora-tuago dirudien itz bat, *vascologo-ri* dagokiona, Napafoako Gojainen aitzurlari batengandik belafiratu zitzaidan : *euskalari*. *Zale* ori beste itzok ere eztu *tzale* egiten : *bakar-zale* (AN, B, G), *egurzale* (G), *urzale* (AN, B, G), ta oñezaz

gainera ezpain ta belarrietan darabilzkigu *azur*-ta *ezurzale*, *maminzale*, *odolzale* ta beste eun ofelako.

Len aipatu nituen emen *arantzale* ta *araintzale*. Lenen-
goa arantzan ari dana da, beste izenez *arantzaria*; *arain-
zaleak* aldiz, araina gogoz yaten duena adiarazten du.
Lenbiziko itz ofetan ulketa bat (supresión bat) degu :
اران, *i* uldurik. Eta atsaíean (asieran) esan dizutet : ul-
keta batek aldakuntzea dakaíela ondorik. *Ardi*, *gurdi* ta
idi-ri di ta *begiri gi* ulduezkero *zain tzain* da : *artzain*,
gurtzain, *itzain*, ta *belzain*. Efiak *Euskaltzain* ta *Euskal-
tzale* esango balu, *euskaltun*, *euskalkaitz* ta *euskalkaitzo* era-
biliko lituke.

IV. Laugarén urats bat, azkena, eman dezagun. « Aca-
démico de la lengua vasca » *euskaltzain* bada ¿ nola adie-
razi dezakegu « Academia de la lengua vasca ? » Azken-
batzaíean *Euskaltzaingo* zala esan nizuten neretzat itzik
egokiena. Egun auetan *go* atzizkiak dituen bost zentzunak
aratz ta *di* beti zentzun batekoa dala ikusirik, nere
eritziai zurrkaitzak ezartzera etofia enaizelako, egiaren
menpekoa baino besterik enaizelako, zuen arteko batzuen
eritzia zuzenagotzat artuta, nik ere *Euskaltzaindi* dala uste
det gure Baltzu au adiarazteko itzik egokiena.

Beste itz eratoíak (derivados) bererakoak dirudite :
Euskaltzaingo (cargo de académico), *Euskaltzainburu* (direc-
tor de la Academia), *Euskaltzaintzako* (correspondiente de
la Academia) ta *Euskaltzainide* (auxiliar de la Academia),
Euskaltzain-lankide (colaborador de la Academia).

1. Ikus geigarían irugaíen oarí.
